

Iñigo Landa Ijurko

## GURE AITONA ETA GERRA ZIBILA, MEMORIA ETA HISTORIA

*“Atravesando esta tarde el paseo de los Fueros he coincidido con un numeroso grupo de chiquillos que jugaba a fusilar.”*

(José de Arteche, “El abrazo de los muertos”)

Gure aitona, Pablo Landa Iribar, Gerra Zibilean hil zuten, Zallan (Bizkaia), 1937ko ekainaren 27an, 51 urte zituela. Hilketaren gerraren atzeguardian gertatu zen eta hil zutenen artean altzatarrak zeuden.

Aitonaren izena, ordea, ez da biktimen zerrendetan agertzen. Gerrako beste biktima asko bezala, desagertuta dago; heriotza eta ehorzketa ez daude inon dokumentaturik. Heriotzaren lekukotasunak, gogorapenak eta paperak etxe barruan eta etzekoen baitan gordeak izan dira. Era berean, aitona izena familiaren hilobian zizelatuta badago ere, gorpua Zallako hilerrian, fosa komun batean ehortzita dago, inolako identifikaziorik gabe, eta, oraingoz behintzat, hura berreskuratzeko itxaropen gutxirekin, fosa horrek ofizialki aitopenik ez baitauka.

Gerra Zibila hasi zenetik hirurogeita hamabost urte pasatu direnean, gertakizun horiei buruz hitz egitera gatoz, argitasun bila, hitzek eduki dezaketen balio sendagarriaz baliatzera, jasandako kalte moralean, behinik behin, osasuntzera. Horretarako, senideek bakardadean bizitutakoak eta gogoan gordetakoak entzun ditugu, —tamalez, harekin harreman zuzena izan zuten etxeko gehienek utzi gaituzte—, argazkiak ikusi ditugu eta etxeko tiraderetan eta kutxatxoetan tolesturik egon diren paperak zabaldu ditugu. Memoria astintzearekin batera, hemerrotekan eta artxiboetan


bilatu dugu eta Gerra Zibilaren historiografiak dioena irakurri dugu. Hori guztiarekin osatu dugu artikulu hau Pablo Landa gure aitona eta gertakizun horiek ez ahazteko eta ezagutarazteko, senidekoei ez ezik Gerra Zibilarekin interesaturik egon daitekeen edonori ere kontuan hartzeko ezer eskaini diezaiokeelakoan. Izan ere, Pablo Landa, gure aitona izateaz gain, Altzan gizon publikoa ere izan zen eta, neurri txiki batean bada ere, gure herriaren historia politikoaren zati bat da.

## 1. Familia eta lana

Landa Iribar familia Zestoako Txomin-txiki etxekoa da. Bederatzi anai-arreba ziren. Haietatik, Pablo eta Maria Herrerara etorri ziren bizitzera eta Pedro, Pablarekin oso lotuta egon zen anaia, Pasai Antxon bizi zen eta kontratista gisa lan egin zuen. Pablok eta Pedrok elkarren ondoan egin zituzten fa-



*Landa-Jaka familia etxeko atarian, 1942. urte aldean. Goian, josita, Pablo Landaren argazkia. Eserita, Jazinta Jaka. Eskerretik eskuinera: Isabel, Patsi, Migel, Santi eta Jose Migel.*



*Landa-Jaka familia Jolastokietan 1918. urte aldean. Ezkerretik eskuinera, Pablo aita, Patsi, Martin, Jose Migel eta Jazinta ama. (Familiaren albuma).*



*Jolastokieta, 1916-07-09. Pablo Landa, eskuinetik laugarrena, bibotearekin. (Familiaren albuma).*

miliaren hilobiak 1933. urtean, Altzako hilerrian.

Pablo Landa Iribar (Zestoa, 1885 - Zalla 1937) eta Jazinta Jaka Sotil (Betelu, 1889 - Alza, 1958) senar-emazteek Herrerako Vista Alegre etxean osatu zuten familia. Sei seme-alaba izan zituzten: Martin (1911-1928), Patxi (1914-2009), Jose Migel (1916), Isabel (1919-2006), Migel (1924-1996) eta Santi (1927-1988). Aitona hil zuten urtean, bi seme zaharrenak Bizkaian zeuden soldaduskan, artillero eta ertzaina, eta beste hirurak, alaba eta bi mutiko gazteenak, amarekin etxean.

Pablo Landa 1913. urte inguruan etorri zen Herrerara lan egitera eta bizitzera, Donostiako Jolastokieta kirol elkarteak egindako instalazioetan. Hiru urte beranduago, Jose Ramon Sarriegik egindako Vista Alegre etxeko lehen solairuan etxebizitza alokatu zuten eta azpiko lokalean denda eta taberna jarri zuten. Etxea



*1933. urteko jaien egitarauan argitaratutako iragarkia. (Iturria: Altzako Tokiko Bilduma).*



*1935. urteko "Guía industrial-comercial de Pasajes-Alza" argitaratutako iragarkia. (Iturria: Irigoien familia, Altzako Tokiko Bilduma)*




*Pasai Donibaneko Batzokiaren inaugurazioa, 1921-06-03. Goian ezkerretik bigarrena Pablo Landa; bosgarrena Erasmo Atorrasagasti; zazpigarrena Luis Alkiza Arzak; zortzigarrena Juanito Atorrasagasti. Bigarren ilaran: bigarrena Manuel Elozegi; seigarrena Juan Ansa Arzak. Laugarren ilaran: hirugarrena Jose Artola; laugarrena Viviano Elizalde. (Iturria: Eduvigis Ansa, Altzako Tokiko Bilduma).*

Tantarrene izenarekin ere ezaguna da Herreran. Amonak dendaren ardura zeukan bitartean aitonak Pasai Antxoko Banco Guipuzcoano-n lan egiten zuen eta etxez etxe ibiltzen zen Altzan eta inguruko herrietan kobratzaile gisa. Aldi berean, bankuko Manuel Garbizu arduradunaren laguntzarekin, —nazionalek hil zuten Antxon sartzetakoan—, hainbat produkturen markak komertzializatzen hasi zen. 1935. urteko “Guía Industrial y Comercial Pasajes-Alza” argitalpenean, “Bar Vista Alegre, servicio esmerado, comestibles finos” eta “Pablo Landa, Agente Comercial Colegiado” dioen iragarkia aurkituko dugu.

Jarraian, gure aitonaren ibilbide publikoari helduko diogu, datu guztien araber bere heriotzarekin estu lotutako ibilbidea. Pablo Landaren bizitza publikoak bi ardatz izan zituen: Altzako udala eta Herrerako La Salle ikastetxea. Euzko Alderdi Jeltzalearen udal ordezkari gisa jardun zuen Altzako udaletxean 1931tik hil zuten arte, eta antzeko denboraldian, 1927 eta 1936 urte bitartean, Zappino familiaren patronatupean zegoen Herrerako San Luis-La Salle ikastetxeko Guraso Katoliko Elkarteko presidentea lana egin zuen. Bi jarduera horiek, udalarena eta

guraso elkartearena, biak batera garatu zituen; azken finean, batak eta besteak bat egiten zuten bere oinarritzko sinismenean: katolikotasuna. Hori izan zen, hain zuzen ere, ideologiek hain protagonismo handia jokatu zuten garaian, Pablo Landaren jokabidea gidatu zuen ideia nagusia.

## 2. San Luis Eskolaren Guraso Elkartea



*Herrera, 1927-06-21. San Luis parrokiaren inaugurazioa. Pablo Landa, ezkerreko lehenengoa. (Argazkia: Familiaren albuma).*

Dokumentatu daitekeen Pablo Landaren lehen ekitaldi publikoa Herrerako San Luis elizaren inaugurazioan da, 1927ko ekainaren 21ean, non agintari politiko eta erlijiosoekin batera egindako argazkian agertzen den, Guraso Elkartearen ordezkari gisa, seguruenik. Guraso Elkartek, —ofizialki “Asociación Católica de Padres de Familia”—, 1930. urtean hartu zuen izaera juridikoa, garai horretan jasaten ari ziren krisi ekonomiko larriak eragindako arazoei aurre egiteko. Ixteko zorian zegoen eskola eta, aurrera jarraitu ahal izateko, presio handia egin ondoren Altzako udalaren diru-laguntza handitzea lortu zuten, eta gurasoen diru-ekarpenak bilatu behar izan zituzten. Elkartea sortu zenetik Gerra Zibila hasi bitartean, Pablo Landa izan zen Elkarteko presidentea eta Elkartea beraren izenean San Luis Eskolaren Patronatuko bokala. Federico Zappinok<sup>1</sup> sinatutako ziurtagiriak horren berri ematen digu (ikus II. eranskina).

<sup>1</sup> Federico Zappino, bere ama eta San Luis Eskolen sortzailea izan zen M. Teresa Barkaiztegi hil zenean (1929-05-24), eskola zuzentzen zuen patronatuko presidentea zen.

Hortik aurrera, Pablo Landak elkartearen egindako lanak bi une berezi izan zituen: lehenengoa 1933. urtean izan zen, "Ermanuei" egindako omenaldian; eta bigarrena, 1934. urtean, berak jasotako omenaldia. Omenaldi biak gizartearen bizitzaren ari ziren gatazken isla dira.



*San Luis plaza, 1933-07-30. La Salleko Anaiei egindako omenaldia. Pablo Landa erdian, Leopoldo anaia eta Zacarias Oyarbide erretorearen artean. (Familiaren albuma).*

"Ermanuei" egindako omenaldia Errepublikaren laizismoarekin lotuta dago. Errepublikarekin Espainiak estatu katoliko izateari utzi zion eta hartutako beste erabakien artean bazegoen bat eskola katolikoetan eragin zuzena izan zuena: erlijioak hezkuntza sistematik kanpo egon behar zuten eta, ondorioz, kongregazio erlijiosoek ere bai. Aurrerago ikusiko dugun bezala, Estatuak eskola publikoa eta laikoa bultzatu nahi zuten eta, horretarako, lege bat dekretatu zuten hezkuntzan aritzen ziren kongregazio erlijiosoen jardura debekatuz:

*"Art. 30. Las Ordenes y Congregaciones religiosas no podrán dedicarse al ejercicio de la enseñanza. No se entenderán comprendidas en esta prohibición las enseñanzas que organice la formación de sus propios miembros. La inspección del Estado cuidará de que las Ordenes y Congregaciones religiosas no puedan crear o sostener colegios de enseñanza privada ni directamente ni valiéndose de personas seglares interpuestas." "Ley de Confesiones y Congregaciones Religiosas" (1933-05-17)*

Lege horren arabera, La Salleko Anaiak ezin zuten ofizialki eskolarik eman, baina egoerari buelta eman zioten: *“Erantzuna, azkarra izan zen: Guraso Elkarateak bere gain hartu zituen ikastetxearen gastu guztiak eta Anaiak sotana utzi eta dotore agertu ziren trajez eta gorbataz jantzita”*, kontatzen digute Lorenzok eta Garinek<sup>2</sup>. Uztailaren 30ean, abitua kendu behar zuten egunaren bezperan, “agur” omenaldia antolatu zen: meza San Luis elizan, argazkia plazan eta bazkaria Martillun jatetxean. Guraso Elkarateak antolatua zenez, fraile, guraso eta ikasle ohiekin plazako argazkiaren erdian Pablo Landa Guraso Elkarateko presidentea eta Leopoldo Anaia eskolako zuzendaria agertzen dira, “ermanueli” eskainitako oroitzapenezko albumarekin. ‘Itan’ kronikalariak honela zioen *El Día* egunkarian omenaldiari buruz:

*“Ermanuari omenaldia*

*Guraso katolikoaren alkartasuneko lendakari dan Landa’tar Paul’ek lendabizi itz egin zun, azalduaz bere eskerrak ala merezi dutenari beren lanangatik eta erakutziyaz bere samintasuna bere aurkako lege zital orregatik; gero emengo parroko On Zaka-rias’ek, eta askeneko Ermanu danen izenian, orain emen buru egiten dunak...”<sup>3</sup>*

Eskolaren jarduerak jarraitu egin zuen eta, handik gutxira, azaroan, eskuinak irabazi zituen hauteskundeak eta ezker zaleek bultzatutako legeak balio gabetzeari ekin zion. Honela diote Lorenzok eta Garinek: *“Arazoek ez zuten geldiarazi eskolaren eraberritzea. 1931ean ikasgela berriak eraikitzeari ekin zitzaion, lehengoak ez bait ziren aski, eta 1934an Anaiei elkarate egoitzaz aldatu zen, ‘Villa Concheshi’ra, Eliza ondoan zegoen txaletera, Zappino jaunarena hain zuzen. Aipatzekoa da Guraso Elkarateen Batzordeak bi auziotan izan zuen egiteko garrantzitsua, agertu ziren zailtasun guztiak gaindituz”*.<sup>4</sup> Aipatutako lan eta berrikuntza horiekin lotu behar dugu familiaren paperen artean aurkitutako hitzaldi baten testua (ikus V. eranskina) non, Maria Teresa Barkaiztegi anderearen irudia kokatzeko egiten den ekitaldian, haren oroipena gorai patzen den.

Aipatutako lan eta berrikuntzekin ere erlazionaturik dago bigarren omenaldia, Pablo Landa berak jaso zuena 1934ko abuztuaren 12an. Honela dio ‘Zugaizpe’ kronikagileak *Argia* aldizkarian:

*“Omenaldiya gaurko*

*Igande ontan gorasarre egingo zayo Landa’tar Paul jaunari, Sendiko aiten el-karte edo “Asociación de Padres de Familia” izendatzen dan ortan Lendakari da ta lan asko ta zuzen egin du Landa jaun jatorrak. Merezia dauka beraz egiten zaion omena.*

2 LORENZO J.; GARIN, S.: “Colegio San Luis – La Salle Ikastetxea. Hacia el 90 aniversario / 90. urtemugaruntz (1913-2003)”, in *Altza, Hautsa Kenduz*, VI (2001), 218-219 orr.. Artikuluan jasoak daude argazkian agertzen diren izen-abizenak.

3 *El Día*, 1933-08-02

4 LORENZO..., op. cit., 218. or. Villa Concheshira joan aurretik Anaiak Zeruko Ate etxean bizi ziren, San Ignazio galtzadaren ondoan.

*Pelota partidu ta abar antolatu dituzte egun orretarako ta illunabarrean afa-riya Martillun jatetxe ospatsuan izango dute.*

*Eskerrak egin dezun lanagatik eta zorionik beroenak gure aldetik damaizkizugu.*<sup>5</sup>

*El Día* egunkarian aurkituko dugu zehatzago omenaldiaren nondik norakoa eta egitaraua (ikus III. eranskina). Kronikan omenaldiaren garrantzia azpimarratzen da eta, ezagunak diren etsaiak eta zailtasunaz gain, hitz erdika, ustezko lagunekin izandako gorabeheraz (“*biliosidades de gente al parecer afecta*”) ere hitz egiten du, zehazki zertaz ari den esan gabe. Iluntasun gehiago daude omenaldi horren inguruan, egun berean, gobernuak debekatutako bozketak egitekoak baitziren Gipuzkoako udaletan<sup>6</sup>, baita Altzakoan ere, eta omenaldiaren kronikan aipamenik ez da egiten. Kontuan izan behar da Pablo Landa berak bozketa horretan parte hartu zuela, zinegotzia baitzen<sup>7</sup>. *El Día* egunkariak, bozketari buruzko kronikan<sup>8</sup>, ekitaldia goraiatu zuen eta agertu ez zen zinegotzi bakarria Cardona ezkertiarra izan zela zehaztu ere.

### 3. Zinegotzia

Esan bezala, politikan ere murgilduta egon zen Errepublikak iraun zuen denboraldian<sup>9</sup>, EAJ-PNV alderdiari lotuta. Alderdiaren barruan lan egin zuen, besteak beste, 1932. urtean<sup>10</sup> batzokiaren taberna eramaten, eta 1933. urtetik<sup>11</sup> aurrera Altzako Uri Buru Batzan diruzain.

<sup>5</sup> *Argia*, 1934-08-12, 697. zbka.

<sup>6</sup> EAJk Errepublikan garaian izandako jarrera politikoari buruz: DE PABLO, S.; MEES L.; RODRIGUEZ RANZ, J.A.: *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco*, Barcelona, Crítica, 1999; I. tomoa, 209-282 or.

<sup>7</sup> *La Constancia* egunkari tradizionalistan “*La comedia del domingo*” izenburupean “Jai Jai” ezizenez sinatutako Altzako kronikan barregarri uzten du bozketa eta, besteak beste, honela dio amaieran: “*Así pasó tan solamente aquí el domingo. Los directores y apuntadores de la politiquería local bien escondidos dentro de su concha, por no faltar a la costumbre. Los otros, los de la plataforma, atacados de mieditis, con cuarenta grados de fiebre. Las banderas garibaldinas izadas en los batzokis, simbolizando el día de la liberación, que resultó de cautiverio para otros menos avisados... y sanseacabó todo aquí con una cuchipanda nocturna, en que todos los valientes dieron cara y se refocilaron de lo lindo, jaleando a una con el tamboril hasta media noche.*”

<sup>8</sup> *El Día*, 1934-08-14.

<sup>9</sup> Hemen eta aurrerago aipatutako aktetako datuak: CEREZO, A.: “II. Errepublika Altzan Udaletxe-ko aktan bidez”, in *Altza, Hautsa Kenduz VIII*. (2005), 71-115 orr.. Garai honi buruz ere ROQUERO, M.R.: “Alta 1910-1940” in *Altza, Hautsa Kenduz VIII*. (2005), 117-134 orr..

<sup>10</sup> *El Día*, 1932-11-24 (Itani): “Batzokiko berriak – Adituaz emengo bazkide askoren eskatua, eta ezagutuaz arrazoiskoa dala (¿nola ez?) Batzokiyan jarri dute erari-toki eder bat, eta bertako “serbiziya” nolakua dan adierazitzeko naikua da Landa Jaunan gaiñ dagoela esatia.”

<sup>11</sup> *El Día*, 1933-03-08 (Itani): “Uri Buru Batza – Juan dan igandian zortzi, Otsaila’ren 26’an, izan gendun Erre-ra’ko Batzokiyan, Alta’ko Uri Buru berriya izendatzeko batzarra, eta bertan izendatu ziran: Lendakari: Alkiza’tar Joseba; Idazkari: Elizalde’tar Sebasten; Diruzai: Landa’tar Paul. Itxaro degu ogandik, beren aurrekuak bezela, ondo beteko dutela beren eginbarrak Jaungoikua eta Lege Zarra’ren aldez.”





*Altzako zinegotziak eta alkatea aurrekoa dantzatzen plazan, 1931-07-02. Pablo Landa dantza amaituta eskutik heltzera doa. Bigarren argazkian, eskuineko lehenengoa. (Familiaren albuma).*



Altzan, Gipuzkoan bezala, Errepublika garaiko hauteskunde guztiak EAJk irabazi zituen, 1931ko udal hauteskundeak izan ezik, kandidatura independenteak irabazi zituena. Bestetik, ezkerreko alderdien presentzia garrantzitsua zen eta, Gipuzkoan eskuina bigarren indarra zen bitartean, Altzan ezkerra zen bigarren indarra<sup>12</sup>.

Errepublika garaiko Altzako lehen udalaren osaketa (1931-04-17) honela geratu zen: 6 independente, 4 abertzale, 2 errepublikar. Jose Juanes Etxebeste aukeratu izan zen alkate eta Pablo Landa bigarren sindikoa. Garaiko udal antolaketan, udalaren eta herritarren arteko bitartekaritza egitea zen sindikoaren eginbarra, baita fiskalizatzailea eta auzietan udalaren ordezkariak eramatea ere.

Alkateak, osasun arrazoiengatik dimisioa eskatu zuen eta haren ordezkari Pedro Ayesta aukeratu izan zen alkate eta Pablo Landa bigarren alkate-orde (1932-02-16). Alkate-ordearen eginkizuna, besteak beste, udal barruti bat bere kargu hartzea zen.

Hauteskunde orokorren ondorioz (1931-06-28), Errepublikako gobernuan indar ezkertiarrek jarri ziren agintzen, "Biurteko erreformatzaile edo aurrerakoia" bezala ezagutzen dena. Lege erreformatzaileen aplikazioa bultzatzearen, gobernadore zibilak hauteskundeetan aukeratutako zinegotziak udaletik kanpo utzi zituen eta gestora bat izendatu (1932-09-29), Juan Iriarte Agirre alkatetzan jarritz.

Giro politiko nahasia zegoen herrian eta horren adierazgarri da ondoko pasadizo hau. Pablo Landak, zinegotzia zenez gero, Gobernu Zibilaren baimena zeukan pistola eramateko, baina inoiz ez zuen pistolarik eduki, ez baitzuten armarik nahi etxean. Udalean gestora ezarri zenean, José Hernández eta Gaspar Cardona gestore ezkertiarrek etxera etorri ziren pistola kentzera, baina etxean armarik ez zeukatela erantzun. Orduan, etxea miatu nahi izan zuten eta Landak aurre egin zien etxean sartzea debekatuz. Ez zen ezer larriagorik gertatu, baina egun horretatik aurrera, etxetik udaletxera seme zaharrenak lagunduta joaten hasi zen, badaezpada.

Urtebete beranduago, 1933ko azaroaren 19ko hauteskundetan, eskuina nagusitu zen Espainiako hauteskunde orokorretan, "Biurteko erradikal-cedista"-ren garaia zabalduz, eta berehala gobernadore zibilak gestora ezkertiarra kendu eta zinegotzi hautetsiak bere postuan jarri zituen. Hamar hilabete pasatu ziren eta 1934ko irailaren 17an gobernadore zibilak gestora berri bat izendatu zuen, Luis Rubio Constans alkate izendatuz.

Denbora tarte horretan, ezkerreko gestorak utzi zuenetik gestora berria hasi bitartean, Pablo Landa udaletxeko lanean murgildu zen, hezkuntza eta obren arloetan batez ere. Orduan izan ziren gorago aipatu ditugun omenaldia eta bozketa uda-

---

<sup>12</sup> Hauteskundearen analisia: RODRIGUEZ RANZ, J.A.: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II. República*. Donostia: Dr. Camino, 1994. Hauteskundeak Altzan: CERESO, op. cit.

letxean (1934-08-12). Aurrerago helduko diegu hezkuntza eta obren inguruko zehaztasunei eta, oraingoz, arlo pertsonalean zein politikokoan 1934. urtean bizituta-ko pasarte bat aipatzera mugatuko gara.

Izan ere, 1934. urteko udazkenean iraultza piztu zen Espainian, batez ere sozialistek bultzatuta, "Urriako Iraultza" izenarekin ezagutzen dena. Asturias, Katalunia eta Bizkaian izan zuen jarraipen handiena. Gipuzkoan ere greba iraultzailearen eragina nabarmena izan zen, Eibar eta Arrasaten bereziki, baina baita Pasaia-ko portuaren inguruan<sup>13</sup> ere, bertan zegoen langile mugimendua oso antolatuta baitzegoen. Ti-roketak, erasoak, errepresioa... Soldaduak, asaltoko guardiak, mikeleteak, indar guztiak erabili zituen estatuak mugimendu iraultzailea zapaltzeko. Hildakoak eta atxilotuak asko izan ziren. Alderdi eta sindikatu nazionalistak oposizioan egon arren, gertakizun horietan albo batean egon ziren. Hala ere, bilatu gabe, Pablo Landa enfrentamendu horietako biktima izan zen; txiripaz ez zen hil. Urriaren 9an izan zen, goizaldean<sup>14</sup>. Ermitako bidean zegoen harrobiko transformadoretik tiroka ari ziren trenbide aldera. Geltokian militarrek zeuden, itxura denez trenaren funtzionamendu normala bermatzeko, eta haiek ere tiroka hasi ziren. Logela geltokiaren aldean zegoen eta bala bat sartu zen leihotik. Pablo Landa ohean zegoen, albo batera etzanda, eta tiroa burukoa eta masailaren artean pasatu zen; haragia baizik ez zuen hartu, sartu eta atera. Tomas Kalparsoro adiskidea eta Agur etxeko bizilaguna Pablo zer moduz zegoen ikustera etorri ziren. Une horretan militarrek agertu eta atxilotuta eraman zuten Guadalupera, tiroketan zerikusirik zeukalakoan.<sup>15</sup>

Pasadizo horrek ez zuen bestelako transzendentziarik izan, baina, familiaren ustetan, masailean balak utzitako marka lagungarria izan daiteke noizbait, gorpuzkinen balizko identifikazioan.

Errepublikaren joan-etorri politiko horretara itzuliz, 1936ko otsailaren 16ko hauteskundeek Fronte Popularra eramango dute agintera eta, berriro ere, gobernadore zibilak aurreko gobernuak ezarritako gestora kendu eta zinegotzi hautetsiak beren postuan jarri zituen. Hau izango da Altzako azken udala estatu kolpea burutu zuten militarrek nagusitu ziren arte.

Uztailaren 18an Errepublikaren aurkako altxamendu militarra hasi zen. Lorenzo eta Garinek kontaktzen digutenez, "*Lehen egun horretan [uztailak 22] Trintxerpeko CN-*

<sup>13</sup> PORTUGAL, X.: Pasaia 1931-1939. *Zanpatuen oroimena*. Pasaia: Udala, 2007; 70-73 orr. DE LA GRANJA SAINZ, J.L.: *Nacionalismo y II República en el País Vasco. Estatutos de Autonomía, partidos y elecciones, Historia de Acción Nacionalista Vasca. 1930-1936. Siglo XXI*, 2008.

<sup>14</sup> *La Constancia* egunkari tradizionalistan irakurtzen dugu: "Martes día 9 – Lluve torrencialmente y durante todo el tiempo que media desde las 2 de la madrugada al amanecer se oyó intenso tiroteo hacia el alto Vi-nagre, Alza y Herrera." (1934-10-12, 6. or.)

<sup>15</sup> Gertakizun honen aipamena *El Día* egunkari abertzalean agertu zen, Pablo Landaren izena aipatzen ez bazen ere: "Un hombre que estaba acostado recibió un tiro cuando se hallaba en dicha posición. Recibió un balazo, penetrándole el proyectil por la barbilla y saliéndole por la oreja izquierda" (1934-10-12, 5. or.)

Tren talde bat agertu zen 'Villa Concheshi'ra, etxeaz jabetu eta Anaiak atxilotu asmoz; talde nazionalisten erantzuna berehalakoa izan zen, Anaien askatasuna eta egoitzaren zaingoa lortuz."<sup>16</sup> Egun batzuk beranduago, abuztuaren 3an, Altzako Uri Buru Batzaren lehendakaria zen Jose Alkizak idazki bat bidali zien agintariei Loiolako kuartelean soldadutza egiten ari ziren Francisco Landa eta Pablo Garin gazteak Altzara bidaltzeko ondoko arrazoia argudiatuz: "son del todo necesarios e indispensables para la debida organización de las milicias para la debida garantía del Orden público y guardias antifascistas..." (ikus IV. eranskina).

2

Lugar y domicilio del punto de evacuación Alsa- Herrera Vista Alegre  
Domicilio en este término municipal Rivera 14-29

SOLICITUD NÚM. 20926

SR. CONSEJERO:

D. Pablo Landa Iribar, natural de Gontona,  
provincia de Guipuzcoa, de 52 años de edad, estado casado, profesión empleado, que presta sus servicios en Alcaías Ayuntamiento Alsa, en calidad de

Expone que se ha visto obligado a abandonar el lugar de su residencia, acompañado de su familia, integrada por (1) HIJO.- Francisco Landa Josa de 25 años, militar

con motivo de la evacuación del término municipal citado, por lo que:

SOLICITA | Alojamiento | (2)  
          | Comidas   |  
          | Ropas       |

Declara el suscrito, bajo su responsabilidad, que (3)

Bilbao, 30 de Mayo de 1937  
El Solicitante,  
*Francisco de Landa*

SR. CONSEJERO DE ASISTENCIA SOCIAL.

(1) Indíquese el nombre de cada familia y su edad.  
(2) Táchese lo que no se solicite.  
(3) Indíquese si tiene ingresos y por qué concepto, o consignese que no los tiene, en caso contrario.

*Ebakuazio erregistroa, 1937-03-30.*

Tropa nazionalak Altzan sartu zirenean (1936-09-11) nazionalak udalbatza berria izendatu zuten<sup>17</sup>. Ordurako Pablo Landa Bilbora alde egina zen. Bilboko Erribera kalean, 14 zenbakiaren bigarren solairuan bizitzen jarri zen, Jose Manuel Beretarbide zinegotziarekin batera, eta bertatik udal administrazioari lotuta jarraitu

<sup>16</sup> LORENZO..., op. cit., 218. or.

<sup>17</sup> Gerra Zibila Gipuzkoan: BARRUSO, P.: *Verano y revolución. La Guerra Civil en Gipuzkoa*. Donostia: Haranburu, 1996. Udal aldaketei buruz: EGAÑA, I. eta besteak: *Gipuzkoa: Udal errepublikanoetatik udal frankistetara. (1936-1939)*. Donostia: Gipuzkoako Batzar Nagusiak, 2011.

zuten, ebakuatutako altzatarren paperak tramitatzen eta antzeko eginkizunetan. Ebakuazioaren erregistro liburuan bera agertzen da Altzako alkate gisa<sup>18</sup>. Jose Migel semeak gogoratzen du etxe horretan ikusi zuela aita azken aldiz hil aurretik. Etxebizitzaren jabea Manuel Díez de Urrutia medikua zen, jaiotzez zallarra, eta Bilboko etxebizitza utzi behar izan zutenean, harekin batera, Zallan zuen etxean babestu ziren.

Laburbilduz, gerra hasi bitartean Pablo Landak hiru momentutan jardun zuen udaletxean zinegotzi hautatu gisa: Errepublikaren lehen hilabeteetan, gobernu ez-kertiarrak eta eskuinaren arteko denboraldian, eta Errepublikaren azken hilabeteetan, Fronte Popularraren garaian. Denera, hiru urte eskas. Denboraldi horretan bi arlotan lan egin zuen bereziki, eskolak eta obrak, eta jarduera horretan, ikusiko dugun bezala, etsai ideologikoak eta pertsonalak sortu zitzaizkion, ondareen inkautazioaren inguruan bildutako datu eta dokumentuetan ikus daitekeen bezala.

#### 4. Ondareen inkautazioa

Erreketen aurrera egitearekin batera ebakuazioa etorri zen. Pablo Landa eta bere bi seme zaharrenak etxetik urrundu, eta Jazinta Jaka beste hiru seme-alabekin batera etxean geratu zen. Seme zaharrena, Patxi, 22 urterekin, gerra hasi zenean soldadutza egiten ari zen artillerian Loiolako kuartelean eta, ondoren, Bizkaiko frontean ibili zen. Jose Migel, bigarrena, 20 urterekin, familiakoen Zestoako baserrira joan zen hasieran, Aulestira (Bizkaia) ondoren eta, azkenik, 1937ko otsailean Ertzaintzan hasi zen, Negurin (Getxo, Bizkaia). Bitartean, nazionalak bere legea ezarri zuten Altzan, udalbatzako osaketa aldatu, eta militarren altxamendua babestu ez zuten arduradun politikoen bila hasi ziren. Jose Migel semea Begoñan preso zegoela, Leopoldo eta Liborio Anaiak, Herrerako lasalletarrak, bisitan joan ziren eta aitarengatik galdetu zioten, eta Zallara ebakuatu zutela erantzun zien. Ongi egin zuela, esan zioten, Altzan, autoritate berriak haren bila zebiltzan eta. Handik gutxira, Deustuko presondegian, Jose Migel gela batera eraman zuten eta Falangeko batek ere aitarengatik galdetu zion. Seguruenik, galdeketa horiek egin zirenerako Pablo Landa hila zegoen.

Eta errepresioa hasi zen. Besteak beste, legez kanpokotzat jotzen zituzten alderdi, elkarte eta arduradunen ondareen inkautazioari ekin zioten.

1937ko urtarrilaren 10ean Francoren Lege-Dekretu batek “Comisión Central de Bienes Incautados por el Estado” delako erakundea sortu zuen eta, horrekin batera, probintzietako batzordeak antolatu ziren. Lege-Dekretu hori beharrezkoa zen 1936ko irailaren 13an dekretatutakoa betearazteko, non alderdien, legez kanpoko

<sup>18</sup> Salamancako Memoria Historikoaren Dokumentazio Zentroa (CDMH), P.S. SANTANDER O, C.123, LIBRO 2, FICHA 20926

elkarte politiko-sozialen eta banakoen ondare eta dokumentuen inkautazioa agintzen zen, *“responsables directa o subsidiariamente, por la acción u omisión de daños y perjuicios de todas clases, ocasionados directamente o como consecuencia de la oposición al triunfo del Movimiento Nacional”*.

Dekretu horien aplikazioan, Jazinta Jaka alargunak Pablo Landaren ondareak inkautatzeko agindua jaso zuen. Mehatxu larri horren aurrean helegitea aurkeztu zuen 1938ko abuztuaren 27an (ikus I. eranskina), hiru argudiotan oinarrituta: 1. Pablo Landa ideia katolikoen eta ordenaren defendatzailea zen eta aurre egin zien gorriei; horregatik jazarpena jasan zuen eta babesa bilatu zuen Zallan, Díez de Urrutia mediku monarkikoaren etxean, non harrapatu zuten eta bide ertzean hil. 2. Beraien bi seme une horretan soldadutza nazionalekin ari zirela egiten eta, ondorioz, haiek ere kaltetuak izango ziren. 3. Pablo Landa Guraso Elkarte Katolikoaren partaidea zen, ziurtagiriak zioen bezala.

Familiakoek gogoratzen dutenaren arabera, Pasai Antxoko Carlos Yarza prokuradorearen bitartez tramitatu zen helegitea. Helegitearen bermatzailea Federico Zappino izan zen, San Luis Eskolen Patronatuaren Juntako lehendakaria, eta berak sinatu zuen helegitearekin batera aurkeztu zen ziurtagiria non Pablo Landaren katolikotasuna eta eskola katolikoaren alde egindako lan itzela nabarmentzen den. Zappinok edo Yartzak, pertsonak berak idatzi zituen helegitea eta ziurtagiria, idazmakina-tipoak berdinak izateaz gain, errore bera agertzen baita bietan: Pablo Landaren bigarren abizena oker idatzita dago, Imaz agertzen baita Iribar-en ordez.

Ez dakigu helegiteak zein bide izan zuen, ez artxiboetan ezta etxean ere, ez baitago inon arrastorik. Garbi dago inkautaziorik ez zela egon; familiaren ondarea eskasa zenez, ez zegoen zer kendu. Gainera, aita hil ondoren militarren matxinada babestu zuten katolikoek Landa familia errepresioa saihesten lagundu zuten, Zappinoren ziurtagiria horren adierazgarria delarik. Azken finean, hilketaren arrazoen bila gabiltzala, aurkeztutako helegitetik atera daitekeen ondorio nagusietako bat zera da: Errepublikara garaian egin zuen eskola katolikoaren defentsak etsaiak ekarri zizkiola. Hau baieztatzeko, inkautazioaren dokumentuekin batera gordetako beste dokumentuak ere badaude, batzuk udaleko Hezkuntza Batzordearekin loturik eta besteak Obretako Batzordearekin.

#### **4.1 Eskolen auzia**

“Ermanuei” egindako omenaldiaz hitz egin dugunean aipatu dugu nola “Biurteko aurrerakoien” garaian, Errepublikaren gobernuak estatuaren laiktasuna bultzatu zuen eta, besteak beste, “Ley de Confesiones y Congregaciones religiosas” delako legearen bitartez, eliza katolikoa hezkuntza mundutik baztertu nahi izan zuen. Altzan, ikusi dugun bezala, lege horrek eragin zuzena izan zuen San Luis ikastetxean (titularitatea, anaien janzkera...), eta baita udal politikan ere.

Kongregazio erlijiosoak baztertzearekin batera, gobernuak hezkuntza publikoa sustatu nahi zuen eta, horretarako, gobernu zibilak izendatutako udal gestorak

110.000 pezetako proiektu bat onartu zuen Herreran eskola publiko bat eraikitze-ko. Juan Iriarte alkateak gutun bat bidali zion 1933ko abuztuaren 18an Francisco Barnés ministroari eskolak eraikitze-ko espedientearen lehenbailehen onar zetzan<sup>19</sup>.

Alabaina, 1934. urtean gobernu aldaketa etorri zen eta hauteskundeetan hautatutako zinegotziak beraien postuetara itzuli ziren. Ekainaren 1ean udalak Herreran eskola eraikitze-ko erabakia bertan behera uztea erabaki zuen eta eskola berrien proiektua Molinao aldera eramanean zuen: uztailearen 1ean Molinaon lursail bat erosteko erabakia hartu ondoren, abuztuaren 9an Molinaon eskolak egiteko 110.000 pezetako aurrekontua onartzen da. Bi data horien artean, uztailearen 11n, Altzako "Unión Republicana de Izquierda" talde politikoak, Altzako Ezkerra Errepublikarraren presidentea zen José Hernándezen bitartez, idatzi bat erregistratu zuen udaletxean Herreran eskolen proiektua bertan behera utzi izana salatze-ko (ikus VI. eranskina)<sup>20</sup>. Izenik esaten ez badute ere, Guraso Elkarte-ko presidentea den zinegotzia nabarmentzen dute erabakiaren arduradun bezala:

*"¿Cuál es la causa por la cual el Ayuntamiento actual no construye las Escuelas? pues muy sencillo, en el Ayuntamiento existe un Concejal, que es el presidente del Patronato de Padres de Familia, y éste Señor concejal, tiene especial interés en que los frailes disfrazados de personas, no se les cuelgue la enseñanza religiosa, y espera de que en vista del rumbo que va tomando la República no lleguen á aplicarse las Leyes votadas en las Constituyentes y entonces poder dar la subvención á los mencionados frailes exfrailes."*

Azkenean, Herrerakoa paralizatu eta Molinaokoa ere ez zen egin, eskola egiteko lursaila erosteko erabakia hartu bazen ere (ikus VIII. eranskina).

## 4.2 Obrak

Nahiz eta inkautazioaren dokumentuetan gatazka arazo erlijiosoari soilik mutuzten den, etxean, dokumentu horiekin batera, udaletxe-ko Obrak Batzordeari da-

<sup>19</sup> CDMH, PS-MADRID,640,474

<sup>20</sup> Dokumentu honekin erlazioatuta badago beste bat, udalaren barruko ohar bat, non Altzako eskolek jasotzen duten diru-laguntzak agertzen diren (VII. eranskina). Honekin lotuta, "Guía industrial y comercial de Alza-Pasajes" liburuxkak 1935. urtean hezkuntza arloa Altzan nola zegoen hornituta zehatz-mehatz esaten digu: "En el aspecto educativo, cuenta Alza con las siguientes escuelas: la del casco, con unos 30 alumnos, maestro don José Benito Labaca; la de niñas, con unas 30 alumnas, maestra, doña María Arranz; la de Miracruz, con 25 alumnos, maestro, don Dionisio Pérez; la de niñas de Miracruz, maestra, doña Angeles Chaperó; la de niños de Buenavista, con 110 alumnos, maestro, don Fidel corchera y profesor auxiliar, don Amancio Ochoa; la de Sarrueta-Martutene, con 75 alumnos, maestro, don Félix Dorronsoro. Además, el municipio subvenciona las escuelas de niñas de Molinao, con unas 60 alumnas; la de niños de Herrera, con 50 alumnos y la auxiliaria de niños de Buenavista, dos escuelas en Herrera, con unos 50 alumnos que asisten a ella. También sostiene el Ayuntamiento tres clases de adultos, así como subvenciona las clases de dibujo en Herrera y Buenavista, cuyos profesores son don Angel González Machain y don Pedro Aguinaga."

gozkion hainbat dokumentu gorde dira. Dokumentu horiek horrelako batzorde baten ohiko edukiak dauzkate:

- Datarik gabe. Udal batzordearen gai zerrenda<sup>21</sup>.
- Altza, 1936-03-02. “*Nota para el Sr. Presidente de la Comision de Obras Sr. Landa.*” Gastuen aurrekontua da, Luis Aranburu udal kontulariak sinatuta (ikus IX. eranskina). Gutunazal ofizial baten barruan: “*Para el Sr. Concejal D. Pablo Landa E.P.M.*”
- Pasaia, 1933-12-30. Guano y Pescarina “GYPSA” enpresak Altzako alkateari bidalitako eskabidea lantegira doan bidea eta zubia konpon ditzan.

Familiaren memorian, ordea, obrak gatazka iturria izan ziren. Batez ere, urte horietan egindako Buenavista-Sarrueta errepidea izan zen auzia eta, zehatzago, lehen zatia eraikitzearen langileak —gehien bat langabetuak— kontratatzeko modua<sup>22</sup>. Lehen zatiak Buenavista eta Kataliñene lotu zituen eta 1934-1935 urte bitartean eraiki zen. Pablo Landa zinegotzi izan zen hilabeteetan arduraz zuzena izan zuen errepide horren eraikuntzan, langileekiko harremanetan eta ordainketetan. Familiakoek gogoratzen dute nola dirua aurreratu zuen hainbat ordainketa egiteko, eta nola lagundu zioten Putzuetako harrobira errepidearen hornikuntzarako harriz-bolumenen kalkuluak egitera, edo nola langileen komisiokoak etortzen ziren etxera harekin biltzera, lanaren gorabeheraz hitz egiteko, eta tentsioak maiz izaten omen ziren.

## 5. Hilketa

Pablo Landa heriotzaren zergatia izan zen ondareen inkautazioa saihesteko helegitean erabilitako argudio nagusia: “*tiene que alegar que si bien era de ideas nacionalistas toda su vida, fue defensor de las ideas de orden y católicas, enfrentándose en muchas ocasiones a los elementos rojos y del Frente Popular. Que debido a ello fué perseguido durante los meses de Julio y Agosto de 1.936, y tuvo que huir de Alza refugiándose en Zalla, provincia de Vizcaya, donde siguió la persecución de los elementos del Frente Popular de Alza, y que hallándose escondido en casa de Don Manuel Díez Urrutia en dicho*

---

<sup>21</sup> Gaiak hauek dira: “*Facultada para obtener una mayor cantidad de subvencion que se trata de solicitar de la Gypsa para arreglo de camino. / Sobre dos chalets en el alto de Miracruz en pertenecidos de Herederos de Arzac. / Sobre el asunto de Recauchutados M.R.M. / Higiene / Averiguar el asunto limpieza matadero*”

<sup>22</sup> *Guía...* op. cit.: “[Alza] Tiene buenos caminos vecinales, como son el que baja del casco a la carretera general, el de Molinao y el de Miracruz hasta el puente de Garro y en la actualidad, finalizado el primer trozo de la carretera de Alza a Martutene, se realizan los trámites para construir el segundo trozo, que una vez terminada, resultará un pintoresco paseo y al mismo tiempo un adelanto de tiempo para los vehículos, toda vez que dicha carretera acorta la distancia en bastante espacio.

Además, la construcción de dicha carretera, ha influido bastante para amortiguar en parte el parte (sic) obrero local, toda vez que en ella y por turnos, se han ocupado infinidad de ellos y el segundo trozo ocupará, también, en la misma forma.”




*pueblo, médico conocido por sus ideas monárquicas, fue descubierto por los elementos que le perseguían y sacado de allí fue asesinado cobardemente en una cuneta de la carretera, pagando así cuanto había realizado de cristiano y amante del orden en su pueblo de Alza.*" Dokumentuak jazarpenaz hitz egiten du; haren atzetik ibili zirela, azkenean harrapatu eta hil egin zutela. Helegiteak esaten duena, ordea, ez dator guztiz bat familiaren memorian gordetako kontakizunarekin.

\*\*\*

Hil zuten egunean, 1937ko ekainaren 27an, Díez de Urrutia medikuaren etxean zegoen Pablo Landa, han bizi baitzen Bilbotik ihes egin zuenetik. Berarekin Jose Manuel Beretarbide zegoen, Molinaokoa, alderdikidea, adiskidea eta bera bezala zinegotzi Altzako udalean; elkarrekin lana estu egiten zuten alderdiaren kontuetan eta Landaren etxean maiz elkartzen ziren.

Bilbo nazionalen esku erori ostean, Bizkaiko defentsan aritutako batailoiak Kantabria aldera erretiratzeko ari ziren. Zallan hainbat batailoik bat egin zuten, gudariak<sup>23</sup> eta komunistak. Komunistak gipuzkoarrak ziren eta Zallako Maristen ikastetxea hartu zuten kuartel gisa<sup>24</sup>. Miliziano batzuk medikuaren etxera joan ziren korneju bat sukaldean prestatzeko eskaera eginez.

Pablo Landak ahots bat ezagutu eta berarengana joan zen agurtzeko asmotan. Ez zen beste ezer berezirik gertatu. Milizianoak beren batailoira itzuli zirenean, itxura denez, besteekin komentatu zuten medikuaren etxean norekin topo egin zuten



*Zallako udalerriaren mapa baten xehetasuna, 1930. urte aldera. (Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia). 1- Fosaren kokalekua Zallako hilerriaren korridore batean. 2 – La Costanilla kaletxea, hilketaren us-tezko lekua. 3 – Moja irlandarren komentua. 4 – Díez de Urrutia medikuaren etxea. 5 – Maristen komentua, milizianoen kuartela.*

<sup>23</sup> Honela dio bere egunerokoan José María García Hernándezek: "Día 26, domingo. Entra en fuego el Batallón a las ocho de la mañana y en vista de que es sólo éste el que está luchando, y que llega la orden de retirada, lo hacemos a las 11 y nos dirigimos según orden al Depósito de Agua de Zalla. En esta posición nos mantenemos unas dos horas, al cabo de las cuales, hay una desbandada grande y todas las fuerzas se retiran a la Fábrica de Tubos de Estaño de La Herrera (Valmaseda). En esta fábrica comemos y dormimos ese día." José María García gudariaren 43. Batailoian andarien sarjentua izan zen, osasun zerbitzuetakoa, eta egun horietan, ekainaren 23tik 26ra, Zallako txalet batean pasa zuen gaua. GARCÍA CRESPO, Txema: "Diario de José María García Hernández", in *Sancho el Sabio*, 24, 2006, 196. or.

<sup>24</sup> Zallako adineko batzuekin hitz eginez konfirmatu ahal izan da egun horietan batailoia komunista bat egon zela herrian eta Maristen ikastetxea hartu zutela egoitza bezala. Maristen ikastetxea gaur egun moja irlandarren komentuan dago, Díez de Urrutia medikuaren etxe ondoan, baina garai horietan herriko beste eraikin batean zegoen.

eta miliziano talde bat itzuli zen, Pablo Landa etxetik atera, eta handik metro batzuetara, herriko bidean, hil egin zuten. Gorpua hilerrira eramán eta fosa komun batean sartu zuten. Espresuki haren bila joan ziren. Beretarbidek ezagutzen zituen hilketan parte hartu zutenak, baina familiak urteetan saihestu zuen horretaz hitz egitea, amari sufrimendua ez handitzeagatik, beldurragatik, hamaika sentimendu nahasiengatik. Egun, Herrerako batekin soilik gogoratzen dira. Gerra amaitu ondoren itzuli zen, baina ez zuten harekin inoiz hitz egin.

\*\*\*

Heriotzaren notizia Iparraldetik etorri zen etxera, Frantzia aldean zegoen Jose Mari Landaren bitartez, Pablo Landaren iloba. Notizia, beraz, Bizkaitik Iparraldera eta handik mugaren alde honetara pasatu zen. Bide hau, segur aski, gehiagotan erabili zuten. Gerra garaian muga irekita egon zen eta nahiko erraza izaten zen paperak pasatzea<sup>25</sup>, beti ere oinarrizko seguritate neurri batzuk hartuz. Honen proba etxean gordetako bi gutun dira.

Lehenengoa Pablo Landarena da, Isabel alabari 1937ko urtarrilaren 23an idatzita, eskuz eta bere errubrikarekin:

*23 de enero de 1937*

*Isabel me alegraré que al recibo de estas pocas letras te halles bien en compañía de tu madre y hermanos y nosotros todos bien. Gracias a Dios. Por las noticias que tengo me he enterado que estáis bien y con salud. Ya puedes suponer el consuelo que me causa esas noticias vuestras que yo no me olvido con vosotras. Y también me dicen que estás muy trabajadora al lado de tu madre. Dios te ayudará. Y también me dicen que Miguel y Santiago acuden al Colegio y están sacando buenas notas y les dices que continúen en ese camino para terminar bien el curso. Y José Manuel se acuerda de la Joaquina.*

*Sin otro particular me despido con muchos recuerdos a tu madre y hermanos. Y tú recibes un abrazo de todo corazón que sabes te quiero como siempre. P.L.*

Gutun horretan, aitarengandik etxean jasotako azken notizia, ez du esaten nondik bidali zuen, seguritateagatik seguruenik. Une horretan, gorago esan dugun bezala, Bilbon zegoen, Díez de Urrutia medikuak Erribera kalean zeukan etxe batean bizitzen.

Bigarren gutuna Francisco semeak, Patxik, amari bidalitakoa da:

---

<sup>25</sup> BARRUSO, P.: "El difícil regreso. La política del Nuevo Estado ante el exilio guipuzcoano en Francia (1936-1939)", in *Sancho el Sabio*, 11, 1999, 114. or.: "Los servicios de información del Ejército del Norte en un informe dirigido al general jefe del mismo, y fechado en enero de 1937, afirman de manera textual: 'La excesiva facilidad que se advierte en el paso de la frontera franco español, y la comunicación constante entre familiares que se encuentran a uno y otro lado viene produciendo singular inquietud...'"

*Querida madre:*

*Acabo de llegar de París a ésta y mi primera preocupación ha sido ponerme a escribirle, pues pienso que lo que más le interesa es saber que me encuentre bien de salud.*

*Mi intención es visitarla, pero por ahora no puede ser pues encuentro algunas dificultades para pasar la frontera.*

*Le dice a la María Altuna que he estado con Tomás, y que se encuentra muy mejorado, pues lo menos ha engordado unos ocho kilos.*

*Pensaba ir a esa para pasar las fiestas de Navidad y Año nuevo, pero me ha sido imposible por haberse retrasado los exámenes, en los cuales he salido muy afortunado.*

*Sin más por ahora y pensando que dentro de poco pueda visitarles, y con muchos besos para Isabelita y Miguel y Santi, reciba un fuerte abrazo de un hijo que nunca le puede olvidar.*

*Francisco Landa*

Aurreko gutunean bezala, Patxik segurtasun neurriak hartu zituen idazterakoan: datarik gabe eta Parisetik etorri berria muga ezin pasatu zegoela esanez. Patxi ez zen inoiz Parisen egon eta are gutxiago estudiatzen. Patxi une horretan Bizkaiko frontean ari zen, eta Eguberriko jaiak pasatu zirela dioenez, baliteke aitaren gutunaren garaikidea izatea eta biak batera bidali eta heldu izana etxera. Mugaren beste aldean zegoela esateak konfirma dezake gutunak zein bide egin zuen.

Esan bezala, Pablo Landaren heriotzaren berria mugaz beste aldetik etorri zen etxera, bere anaia Pedroren seme baten bitartez. Jose Migeli amak berak esan zion, Deustuan preso zegoela bisitatu zuenean. Geroago, leku berean, bere anaia Santiren lagun min baten aitarekin egin zuen topo, herratarra hura ere, eta hark esan zion bazekiela "lo de tu padre".

Urtebete beranduago hileta elizkizuna egin zioten aitari San Luis parrokian eta eskela argitaratu *La Voz de España* egunkarian, 1938ko ekainaren 25ean.

*Eskela, La Voz de España 1938-06-25.*



\*\*\*

Hiltzean sufrimenduen amaiera ezagutzen dute hildakoek; bizirik daudenen- gan, ordea, hildakoaren oroimenak bizirik jarraitzen du belaunaldiz belaunaldi. Gerra amaitzean, Pablo Landaren anaia, Pedro, Zallara joan zen gertatutakoa argitzera. Beretarbide ezagutzen zuen eta seguruenik Díez de Urrutiarekin hitz egiteko aukera izan zuen. Nahiz eta Pedrok bere anaiaren familiarekin oso harreman estua izan, tamalez, Zallan egin zuenetik ez da ezer transmititu. Urte horietan samina isiltasunean eramaten ikasi behar izan zuten, eta bizitzen jarraitu.



*Landa Jaka familia (1958). Ezkerretik eskuinera, Isabel, Maritxu Amundarain Jaka, Sor Mikaela Jaka, Jazinta Jaka, Santi pasionista Jabier eta Pablo ilobekin, Pedro Landa, Marcos Solabarrieta apaiza. Goian, Pedro Navarlaz Landa, Migel, Patxi eta Jose Migel. (Familiaren albuma).*

Hogei bat urte beranduago, 1964. urtean, Landa-Jakatarren txikienak, Santi, apaiz pasiotarren botoak egin ondoren Ameriketara joan behar zuen misiolari, baina, alde z aurretik, Zallatik pasatu nahi izan zuen aitaren heriotza lekua ezagutzera. Anai- arrebek elkarrekin egin zuten bisita eta, medikuaren etxe aurrean zeudela, ondoti- k emakume bat pasatu zen jaunartzeko soineko bat eskuan zeramala. Zertan ari ziren entzun eta zuzendu zitzairen ea landatarrak ziren galdetuz. Baiezkoarekin be- rak zekiena kontatu zien, nola eramán zuten, non hil zuten... Medikuaeren etxe on- doan moja irlandarren komentu bat zegoen, gaur egun ikastetxea, eta berak zioe- nez Pablo Landak mezan laguntzeko ohitura zuen. Etxetik atera zutenean, herri- gune aldera lauhun metrotara dagoen kalezulo batean hil omen zuten, medikuaren etxearen, kuartelaren eta hilerriaren erdibidean, eta ondoren hilerrian lurperatu zu-

ten (ikus Mapa). Emakume horrek eskuetan zeukan jaunartze-soinekoa norbaiti eraman behar zion eta horregatik ezin ziela hilerriraino lagundu. Familiakoek bisitatu zuten hilerria eta, Pablo Landa lurperatu zuen enterradorea ordurako hila baze- goen ere, ezagutu ahal izan zuten lurperatuta dagoen lekua.

Anaia eta seme-alaben bisitaren ondoren, hirugarren bat egin da 2009. urtean, oraingoan ilobekin. Hirugarren bisita honen inguruan hainbat kontsulta, galdeketa eta saio ezberdin egin dira Zallan bertan, epaitegietan eta bestelako agiritegietan datuak berresteko eta berriak bilatzeko.

Alta, Donostia, Zalla eta Zestoako udal epaitegietan arakatu ondoren, herio- tza-agiririk inon ez dagoela konfirmatu ahal izan da. Herrerako San Luis parro- kian ere ez dago bere izena hildakoen liburuan jaso. Hilerraren udal artxiboa, bes- talde, sute batean desagertu zen aspaldi eta, beraz, garai hartako arrastorik ez dago.

Salamancako Memoria Historikoaren Agiritegian eta Abertzaletasunaren Agi- ritegian ere kontsultak egin dira. Lehenengoan datu bakarra agertu da, gorago ai- patua, ebakuaziorekin erlazionatuta. Dokumentu horretan Bilbon non bizi zen adie- razten da, La Ribera kalean 14 zenbakiaren bigarren solairuan, alde zaharrear, Me- sedeetako zubiaren aurrez aurre, —etxe hau, esan bezala, Díez de Urrutiarena zen— , eta bertan Altzako alkatea zela jartzen du. Abertzaletasunaren Agiritegian, bes- talde, oso arraroa badirudi ere, ez da inolako daturik ageri, ez Pablo Landari bu- ruz, ezta Herrerako eta Altzako Uri Buru Batzari eta batzokiei buruz ere.

Beretarbide eta Díez de Urrutia familiakoak bilatzeko saioa ere egin da. Diru- dienez, Beretarbide Ondarretako espetxean egon zen denboraldi batez, ezkongaa- bea zen eta ez zuen seme-alabarik izan. Díez de Urrutia medikuak, bestalde, jarraitu zuen bere jaioterrian eta berak eraikitako etxean bizitzen hil arte. Bere bi alabek, ezkongabeak, aitaren etxean jarraitu zuten eta, zahartzaroan, etxea saldu eta Bur- gosko Carrión de los Condes herriko komentu batera erretiratu ziren hil arte. Haien- gandik, beraz, ezinezkoa izan da daturik jasotzea.

Carlos Yarza prokuradore antxotarra, bestalde, Pasaiako alkate izan zen eta Pa- sai Antxoren historia liburua argitaratu zuen. Aspaldi hil zen eta Pablo Landaren ondare inkautazioarekin edo heriotzarekin loturiko paperik ez du utzi.

Zallara egindako hirugarren bisitaldi horrek, ordea, ezaguna zena osatzen eta zehazten lagundu du, zallatarrek erakutsi duten adeitasunari esker. Batzokian adi- neko batzuekin solas eginez eta Zallako historiaz interesaturiko zenbait herritarrekin hitz egin ondoren, heriotzaren kontakizunean zehaztasun batzuk egin ahal izan dira. Hilerriko enterradorearekin izandako elkarrizketa ere garrantzitsua izan da; gerra garaian zegoenaren iloba denez, garai haietako hilerriko informazio batzuk fami- liaren bitartez zuzenean jaso baititu.

Gizonezko batek kontatu zigun nola gerra garaian, bera mutiko zela, granada batek eztanda egin zuen bere eskuetan eta zauriak sendatzera Díez de Urrutia me-

dikuaren etxe ondoan zegoen moja irlandarren komentura eraman zutela, komentua prestatuta baitzegoen ospitale bezala. Gogoratzen zuen nazionalek Zalla hartu aurretik batailoi komunista bat kuartereratuta zegoela Maristen ikastetxean. Medikuaeren etxea eta hilerriaren artean, 1964. urtean jasotako deskribapenarekin bat eginenez, kalezulo bat dago, motza eta aldapa gutxirekin, herrikoek *La Costanilla* izenarekin ezagutzen dutena eta izen ofiziala “Kosme Bibanko kapitainaren etorbidea”, Gerra Zibilean nazionalek fusilatutako herriko kapitain abertzalearen izena.

Gaur egungo enterradoreak zehatz-mehatz badaki fosa non dagoen, 1964. urteko bisitan ezagututako leku bera: sarrera nagusitik sartuta, goialdean ezkerretara, pasillo batean. Kontatzen duenez, orain dela berrogei bat urte pasatxo hilerriaren berrikuntzak egin zituzten. Pasilloaren ondoan dauden panteoi batzuk izan ezik, hilerriko hilobi guztiak lurrian zuzenean eginak zeuden. Orduan eraberritze lanak egin ziren, gaur egun zuriz pintatuta dauden panteoi guztiak. Hezurak atera eta erreklamatu ez zirenak hilerriko goialdean dagoen hezurtoki batean bildu zituzten. Fosa dagoen pasilloa, ordea, ez zuten ukitu ere egin eta hasiera batean zegoen bezala utzi. Bere gainean hormigoia bota zuten, une honetan dagoen bezala utziz. Pasillo horretan, erdialdean, zulo bat egin zuten panteoi batek zeuzkan hezetasun arazoak konpontzeko eta euri urak desbideratzeko. Bestela, ukitu gabe dago. Fosa horretan gorpu asko omen daude, gerran garaian eta nazionalak sartu bitartean hil zirenak bertan hilobiratzen baitzituzten.

## Epilogo

Gure aitona etsaia zen hil zutenentzat eta, haien ikuspuntutik, etsaiak hil egin behar ziren, inpunitate osoz. Aitonak sei urte errepublikar horietan egindako ibilbidea —artikuluaren zehar deskribatu ditugun jarrera politiko, erlijioso eta pertsonala—, arrazoi nahikoa izan ziren nonbait haien mendeku beharra justifikatzeko. Egoera politikoak, bestalde, atzeguardian hau bezalako gehiegikeriak gertatzea ahalbideratzen zuen. Errepublikaren gobernua ez zen gai indar armatuak kontrolatzeko; gainera, Euskadin, Bilboko atzera-egitean jeltzaleek izan zuten jokabideagatik, —italiarrekin negoziatuz, industriguneak suntsitu gabe utziz, batailoiak erresistentziarik gabe errendituz...—, traidoretzat hartu zituzten askok. Gure aitona gehiegikeriaren, inpunitatearen eta mendeku gogoaren biktima izan zen.

Errepublika garaian jokoan egon ziren ideologia guztien artean bortxakeriaren ideia nagusitu zen. “Biba heriotza” oihukatzen zuen Millán Astray jeneralak eta “muturreko bortxakeria” erabiltzera deitzen zuen Molak. Buruzagi eta militante sozialista, anarkista eta komunista askok, bestalde, bakoitzak bere iraultzaren alde, beharrezkoa ikusten zuten bortxakeriaren erabilera, iraultzaren etsaiak tartetik kentzeko. Iraultza eta kontrairaultzaren artean, bide bazterrean geratu ziren erreformaren aldekoak, aldaketa politiko eta ekonomikoak hauteskundearen bitartez egin behar zirela sinesten zutenak. Muturreko bortxakeriaren biktima Errepublika bera

izan zen, Espainiako historiaren lehen saio demokratikoa. Bortxakeriak aniztasun politikoan bizitzeko itxaropena zapuztu zuen eta, horren ordez, manikeismoa eta sektakeria nagusitu ziren.

Horrorea. Horrorea da Gerra Zibilaren memorian eta Historian murgiltzen garenean sortarazten digun sentimendua. Memoriak gure aitona eta familiaren sufrimenduz hitz egiten digu, isiltasunean bizitutako umilazioaz... Historiak, —luze eta zabal ikertu eta idatzi da dagoeneko—, azalpen eta interpretazio kontrastagarriak eskaintzen ditu, eta datu ikaragarriak: 300.000 pertsona hil ziren gutxi gorabehera, erdia gerra operazioetan eta beste erdia atzeguardian; 300.000 pertsona behin betiko erbeste-teratu ziren eta lehen urtean 270.000 preso politiko zegoen espetxeetan<sup>26</sup>. Gerrarekin ez zen dena bukatu eta diktaduraren errepresioak sufrimendua hamarkadetan luzatu zuen. Zenbaki bakoitzaren atzean izenak daude, pertsonak, familiakoak, lagunak. Haiek guztiek bizitutakoa ez da ahaztu behar; eta ikertzen jarraitu behar da. Gerra horretan gertatutakoa gogoratzea eta ikertzea dira horrelako beste gerra bat berriro bizi ez dezagun bermerik hobereana.

Nazio Batuek iaz gogoratu zioten Espainiari behartuta dagoela gerra garaian eta frankismoan giza eskubideen urraketen ikerketa egitera eta desagertutakoak dauden fosak zabaltzera. Horretarako, 1977ko amnistiaren legea baliogabetu behar du eta beharrezkoak diren baliabideak bideratu behar ditu ikerketara eta fosak irekitzera. Bide luzea dago oraindik Gerra Zibilaren biktima guztiei zor zaien “Egia, justizia eta erreparazioa” emateko, baita gure aitona ere, zeren eta fosa anonimo batean desagertuta jarraitzen duen bitartean ez baitaia bidegabekeria hari amaierarik emango.



*Landa-Jaka familiaren hilobia Altzako hilerrian (2008). Behealdean “GOYAN BEGO – 1933 – LANDA-TAR PAUL ETA SENDIA-REN ILO-BIA” zizelatuta dago. Hilarri zurian bere izena eta heriotza data jarriak badaude ere, bere gorpua Zallan dago. Familiaren nahia da aitona Pabloren gorpua bere hilobira ekartzea.*

<sup>26</sup> MORADIELLOS, Enrique: 1936. *Los mitos de la Guerra Civil*. Bartzelona: Península, 2004; 13. or.

## **I. eranskina**

*Donostia, 1938-08-27*

*Jacinta Jacak, Pablo Landaren alargunak Inkautzio Batzordeari zuzendutako eskabidea inkautzio agindua bertan behera uztea eskatuz.*

*(Landa Jaka familiaren dokumentuak)*

ILMO. SR.

La que suscribe, Dña. Jacinta Jaka, natural de Betelu (Navarra), de 50 años de edad, con cédula personal nº 63.757, vecina de Alza, con domicilio en la misma, Vista Alegre - Herrera, a V.E. atentamente expone:

Que ordenada la incautación de bienes de su difunto esposo D. Pablo Landa Imaz [sic], tiene que alegar que si bien era de ideas nacionalistas toda su vida, fue defensor de las ideas de orden y católicas, enfrentándose en muchas ocasiones a los elementos rojos y del Frente Popular. Que debido a ello fué perseguido durante los meses de Julio y Agosto de 1.936, y tuvo que huir de Alza refugiándose en Zalla, provincia de Vizcaya, donde siguió la persecución de los elementos del Frente Popular de Alza, y que hallándose escondido en casa de Don Manuel Díez Urrutia en dicho pueblo, médico conocido por sus ideas monárquicas, fue descubierto por los elementos que le perseguían y sacado de allí fue asesinado cobardemente en una cuneta de la carretera, pagando así cuanto había realizado de cristiano y amante del orden en su pueblo de Alza.

Que los dos hijos de la que suscribe y del finado, llamados Francisco y José Miguel, de 24 y 22 años respectivamente, se hallan prestando servicio militar con los nacionales, y que de seguirse adelante el procedimiento de incautación, resultarían perjudicados además de la que suscribe, estos dos hijos, que aconsejados por su padre fueron siempre opuestos a empuñar las armas en contra del Glorioso Ejército Nacional.

Que se acompaña certificación por la que se aprueba que mi difunto esposo pertenecía a la "Asociación Católica de Padres de Familia" de Alza.

Por todo lo cual espera de la reconocida bondad y justicia de la Comisión que tan dignamente preside V.I., se proceda a levantar la incautación de bienes decretada.

Dios salve. a V.I. y a España muchos años.

Alza. 27 de Agosto de 1.938 - III Año Triunfal.

ILMO. SR. PRESIDENTE DE LA COMISION PROVINCIAL DE INCAUTACIÓN DE BIENES San Sebastián



## II. eranskina

*Donostia, 1938-08-27*

*Federico Zappino-ren ziurtagiria, Pablo Landa Herrerako San Luis Eskolen Patronatuko Batzordearen bokala dela esanez.*

*(Landa Jaka familiaren dokumentuak)*

D. Federico Zappino y Barcáiztegui, Presidente de la Junta del Patronato de las Escuelas de S. Luis de Herrera (Alza)

CERTIFICA

Que D. Pablo Landa Imaz [sic] perteneció como Vocal a la Junta del Patronato de las Escuelas de San Luis de Herrera desde el año 1930 hasta el Glorioso Alzamiento Nacional y ostentando en dicha Junta la representación de la Asociación Católica de Padres de Familia de Herrera.

Que en tal concepto cooperó con el que suscribe y demás miembros de la Junta a la puesta en marcha de dicho Patronato y a desvirtuar las maniobras que los Ayuntamientos del Frente Popular de Alza y la Junta de la Caja de Ahorros Provincial cuando en ésta predominaban elementos socialistas y partidarios del laicismo realizaron con objeto de evitar que en dichas Escuelas se suprimiera la Enseñanza Católica y que merced a la labor enorme desarrollada por el citado D. Pablo Landa, se consiguió que durante el periodo de la República siguieran como maestros en dichas Escuelas los Hermanos de la Doctrina Cristiana.

Y para que conste donde convenga, expido el presente Certificado en San Sebastián, a 27 de Agosto de 1938. III Año Triunfal.

SALUDO A FRANCO!

ARRIBA ESPAÑA!

## III. eranskina

*Donostia, 1934-08-12*

*Pablo Landa-ri egindako omenaldiaren kronika.*

*(El Día egunkaria, 1934-08-12, 9. or.)*

Desde Alza

Homenaje a don Pablo de Landa

Como era de esperar, ha sido acogida con gran entusiasmo la iniciativa lanzada por varios Padres de Familia de homenajear con un modesto acto que consistirá en una cena en la casa Martillun hoy domingo, a las siete de la tarde, al presidente de la Asociación de Padres de Familia de Herrera (Alza), nuestro buen amigo don Pablo de Landa.

El acto en sí sencillo, de propio intento de los organizadores, ha rebasado por las inscripciones recibidas y por las adhesiones manifestadas el estrecho círculo en que sus iniciadores querían celebrarlo. El hecho en sí tiene más importancia de lo que a simple vista pudiera parecer, pues aparte de la calidad y cantidad de simpatías que revela hacia el homenajeado, es la réplica serena pero elocuente, contra las inventivas, críticas, incomprensiones y deslealtades que de una y otra parte ha recibido el señor Landa. Porque no las penosidades de un cargo como el que ostenta, desempeñado en una época dura y difícil en la que ha probado su temple de alma y carácter frente a todos los contratiempos, sino las biliosidades de gente al parecer afecta y que incapaces de ninguna iniciativa, ningún esfuerzo, ningún sacrificio sólo se limitan a impedir la marcha ascendente de lo que tan caro les debiera ser es lo que más apena; pues de algunos, los francamente enemigos, ya se sabe lo que siempre nos aguarda, pero de quien se dicen amigos y cual Judas destilan veneno en todos sus actos envueltos en hipócritas sonrisas... de esos líbrenos el Señor.

Pero de todo y de todos ha sabido nuestro ínclito presidente salir airoso demostrando con ello que no basta pregonar la fe para sentirla y que obras son amores y no buenas razones.

El partido anunciado que se jugará a las seis, promete ser muy interesante, pues aparte de la consabida honrilla se ventila por ambas partes el importa total de los gastos de la excursión al valle de "Urbasa", efectuada hace quince días por doce miembros de la Directiva de la Asociación.

Los señores que han de intervenir son: de una parte Ramón Echarri y Bibiano Elizalde, contra el trío formado por Tomás Lamarca, José Antonio Lasa y Tomás Calparsoro.

El partido tiene el doble objetivo de ventilar el desafío que anotamos, y a la vez hacer pasar un rato agradable a los asistentes al acto que tendrá lugar una vez finalizada la contienda.

Un Padre de Familia.

#### IV. eranskina

*Alza, 1936-08-03*

*Jose Alkizak, Altzako Uri Buru Batzaren lehendakariak, idazki bat bidaltzen die agintariei Francisco Landa Jaka eta Pablo Garin Mutiloa, Loiolako kuartelean zeuden artilleriako soldaduak, Altzara bidali ditzaten herriko milizietan parte hartzeko.*

*Herrerako Euzko Etxearen eta Altzako Uri Buru Batza-ren zigiluak dauzka.*

*(Centro Documental de la Memoria Histórica, Sección Político Social, Bilbao, 219)*

El que subscribe, Presidente del Partido Nacionalista Vasco de la Junta Municipal de Alza, a V.S. con la consideración debida, expone:

Que los soldados de Artillería actualmente en el Cuartel de Loyola llamados Francisco Landa Jaka y Pablo Garin Landa [sic] nos son del todo necesarios e indispensables para la debida organización de las milicias para la debida garantía del Orden público y guardias antifascistas dada la gran extensión de este pueblo de Alza, confiando por consiguiente en que accederán a nuestra demanda en bien de la seguridad de la República.

Alza, 3 Agosto 1.936

Junta Municipal del Partido Nacionalista Vasco

El Presidente

José Alquiza

#### V. eranskina

*D.g.*

*Teresa Barcaiztegi anderearen erretratuaren kokatze-ekitaldian irakurritako hitzaldia.*

*(Landa Jaka familiaren dokumentuak)*

Señoras, Señores:

En breves palabras les voy a relatar la significación de este acto que realizamos.

Como saben Vds. vamos a descubrir el retrato de la Señora doña Teresa Barcaiztegui egregia y bondadosa dama, que muchos conocimos, y que tanto hizo a favor de estas Escuelas.

La Asociación de Padres de Familia tenía para con ella una deuda grandísima de gratitud, y en este día quiere repararla en parte por lo menos colocando en el lugar que nos ha parecido más adecuado su retrato en recuerdo y agradecimiento.

Ahí está como quien contempla, en primer lugar, las generaciones pasadas que le deben su educación en este centro docente que ella fundó el 17 de Septiembre de 1.913, consiguiendo del Hermano Provincial de las Escuelas Cristianas de la Pro-

vincia de Bayona, dos Hermanos del Colegio de San Bernardo, los cuales sembraron la simiente de la ciencia y de la verdad durante muchos años gracias al desinteresado apoyo que esta señora les prestara. Estoy seguro que por mucho que ensalce la figura de esta excelsa dama no me desmentirían los dignísimos sacerdotes y religiosos que en estas aulas sintieron el llamamiento de Dios; ni los numerosos antiguos alumnos que deben su honrosa colocación a la educación aquí recibida.

Contempla también la generación presente, que en número y calidad se desdice de las que pasaron; porque merced al impulso que ella dio a esta obra y la protección invisible que sigue dispensando desde el cielo donde goza, sin duda, a causa de sus grandes virtudes de algo sirven la gran prosperidad de que goza a pesar de las dificultades de los tiempos presentes.

Continuará, como creemos, su oficio de protectora sobre las generaciones futuras que verán en ella una madre bondadosa que les acoge para hacerlos hombres útiles a la sociedad y a la religión.

La Asociación satisface con este acto la deuda de gratitud que para con ella tenía adquirida.

Apreciamos todos en su justo valor los favores que debemos a esta ilustre señora puesto que a ella se le debe la fundación, funcionamiento y la prosperidad presente de estas Escuelas.

He dicho.

## **VI. eranskina**

*Alza, 1934-07-11.*

*Altzako "Unión Republicana de Izquierdas" talde politikoak udaletxean aurkeztutako idazkia Herrerako eskola publikoaren eraikuntza bertan behera utzi izana salatuz.*

*(Landa Jaka familiaren dokumentuak)*

Hay un sello que dice: Centro de Unión de Republicanos de Izquierda.- Alza (Guipúzcoa).- Al Ayuntamiento de la Villa de Alza.- El que suscribe, Presidente de Izquierda Republicana de Alza, en nombre y representación de la misma, al Ayuntamiento tiene el honor de exponer. Esta Izquierda Republicana ve con desagrado la actuación de ese Ayuntamiento, ya que ha tomado como banderín para su actuación el derogar todo el trabajo honrado de la Comisión Gestora. Hasta ahora de nada hemos protestado, pero ha llegado el momento de hacerlo, porque como vecinos de la Villa, tenemos el derecho de vigilar la actuación de los Administradores del Pueblo para evitar los abusos que con su fobia á la Gestora puedan cometer en contra de los intereses de la Villa Toda la actuación de le Gestora, como antes decimos ha sido de honradez cívica, con la sola mira con la sola mira (sic) del bienestar del pue-

blo, podrá haber tenido errores ya que no son infalibles, pero si los ha habido, habrán sido por ignorancia, pero no con mala fé, pero en cambio ese Ayuntamiento, al derogar todo la actuación de la Comisión Gestora, lo hace solamente con fines políticos, sin tener en cuenta si es ó no perjudicial para los intereses de la Villa, como puede verse en le tramitación de las escuelas de Herrera.

Y vamos á entrar en el fondo de la cuestión. La Comisión Gestora ante la carencia de escuelas en el barrio más populoso de la Villa, tomó el acuerdo de construir un grupo escolar, compuesto de dos escuelas de niños y dos de niñas, para lo cual el Ilústre Arquitecto municipal (Q.E.P.D.) confeccionó un plano que fue aprobado por el ministerio de Instrucción Pública, aprobándose reglamentariamente por la Gestora, los presupuestos para la construcción, sacándose á subasta y siéndo adjudicadas á diversos contratistas ante Notario. Hemos de hacer notar lo siguiente; el presupuesto de las mencionadas escuelas era de 110.000 pesetas, y en la subasta fué rebajado á 93.130 pesetas, el Estado concede en primer término, 40.000 pesetas, y en caso de ponerse cantinas escolares y biblioteca, aumentarían la subvención en otras 40.000 pesetas, o sea que al Ayuntamiento las escuelas le costarían 13.000 pesetas. Ahora bien, teniendo en cuenta que el Ayuntamiento paga á dos maestras, 6000 pesetas anuales y 3.600 pesetas el maestro municipal más unas mil pesetas para material, resulta que el Ayuntamiento en 14 meses hubiera amortizado sus desembolsos y se encontraría con un hermosos edificio que hubiera enriquecido las propiedades del Ayuntamiento. ¿Cuál es la causa por la cual el Ayuntamiento actual no construye las Escuelas? pues muy sencillo, en el Ayuntamiento existe un Concejal, que es el presidente del Patronato de Padres de Familia, y éste Señor concejal, tiene especial interés en que los frailes disfrazados de personas, no se les cuelgue la enseñanza religiosa, y espera de que en vista del rumbo que va tomando la República no lleguen á aplicarse las Leyes votadas en las Constituyentes y entonces poder dar la subvención á los mencionados frailes exfrailes. Esto, mirándolo con toda la imparcialidad que debe tener un Ayuntamiento, ya que su obligación es mirar el bien de la Villa que administran, es obrar solamente con miras particulares y partidistas, cosa que debía dejarse á la puerta del Ayuntamiento, pero no piensan así los Concejales actuales, prefieren sacrificar a los padres de los niños, que la mayoría son trabajadores y por amenazas políticas seguramente les obligan á pagar una cantidad que no debían de pagar y que mas falta los hace para que en su casa no les faltase algo necesario. Esto no es cristiano, la enseñanza podía ser gratuita con la construcción de las escuelas y los padres de los niños nada tendrían que pagar. Rogándoles tengan en cuanto todo lo anteriormente expuesto, y revoquen al acuerdo de no construir las escuelas, pues do lo contrario apelaremos á las autoridades superiores, de forma que se exijan las responsabilidades á que hubiere lugar. El concejal de nuestra minoría, dará las explicaciones necesarias. Viva Vd.. muchos años. Alza 11 de Julio de 1934.- J. Hernández - Rubricado.- Hay un sello que dice - Centro de Unión de Republicanos de Izquierdas.- Alza (Guipúzcoa.- Sr. Alcalde Presidente del Ayuntamiento de Alza.

## **VII. eranskina**

*[Altza], 1935-10-04*

*Altzako bost eskoletan dauden irakasleei buruzko oharra.*

*(Landa Jaka familiaren dokumentuak)*

NOTA con respecto a las Profesoras y Profesores de las escuelas del Coro, Carmen, Lorete, Iciarcho y Buenavista.

La Profesora Mugica del Colegio de Nuestra Sr<sup>a</sup> del Coro, viene regentando desde el año 1933. Con subvención variable hasta el año 1932 y desde 1<sup>o</sup> de dicho año a razón de 250 pesetas mensuales.

Las Profesoras de Nuestra Sr<sup>a</sup> del Carmen desde 1<sup>o</sup> del año 1927 con subvención variable hasta el año 1932 y desde primero del precitado a razón de 250 pesetas mensuales.

D<sup>a</sup> Ana Elizalde viene regentando desde el 26 de Octubre de 1931 con la gratificación de 250 pesetas mensuales.

Auxiliar de Buenavista D. Amancio Ochoa desempeño desde el 16 de Diciembre del año 1931 hasta el 15 de Febrero de 1933 a razón de 250 pesetas mensuales y a partir de dicha fecha hasta el 30 de Septiembre de 1935 con 300 pesetas mensuales.

D. Mariano Asanza (auxiliar de Buenavista) desde el 4 de Octubre de 1935 viene regentando a razón de 300 pesetas mensuales.

D. Juan María Jacue Profesor de Iciarcho desde el 5 de Enero de 1933 con 300 pesetas mensuales.